



EMAKUME eta GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO  
**P L A N A**



AMOREBIETA-ETXANOko  
UDALA

# AURKIBIDEA

I.	SARRERA	3
II.	GENEROAREN BERDINTASUNARI BURUZKO KONTZEPTU-ESPARRUA	4
III.	BERDINTASUNARI BURUZKO POLITIKEN ARAU- ETA LEGE-ESPARRUA	7
IV.	PLANA EGITEKO METODOLOGIA	16
V.	II. BERDINTASUN PLANA LORTZEKO JARDUERA-PLANA	19
VI.	PLANAREN KUDEAKETA-EGITURA	41
VII.	PLANA EBALUATZEKO SISTEMA	45
VIII.	BALIABIDEAK	46
IX.	KRONOGRAMA	46
X.	ERANSKINAK	53

## I. SARRERA

Azken urte hauetan emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerantz egindako bidean asko aurreratu da, nahiz eta bide asko gelditu gauzatzeke. Amorebieta-Etxanoko udalerrria behar horretaz jakitun izanik, berehalako helburu bezala planteatzen du emakumeen egoeran egitura-aldaketa lortzeko lan egitea. Baloreen, jarrerren eta pentsamoldeen aldaketa lortzeko eta, bide batez, oinarri modura erabiltzen diren gizarte-egitura desberdinak aldatzeko, udalerriko II. Berdintasun Plan honek norabide horretan urrats garrantzitsua izatea espero du. Gure helburua berdintasuna azkenean eguneroko errealitate ikusgaia izatea da, ez bakarrik legeei erreparatuz.

II. Berdintasun Planak lau urteko indarraldia izango du eta, ondorioz, 2016-2019 denboraldian zehar zabalduko da. Urteko jarduera-planen bitartez antolatu eta garatuko da. Honako ezaugarriak izango ditu:

- Berdintasun Saila arduratuko da aipatutako plana koordinatu eta bultzatzeaz.
- Ebalua daitekeen plana da, neurketa-adierazleak baititu eta, horiei esker, helburu bakoitza etengabe ebalua baitaiteke.
- Aurrez ikusitako epean eta baliabide eskuragarriekin udal-arloka eta erakundeka garatzeko helburu eta jarduera bideragarriak ditu.
- Udalerriri eragiten dion tresna da eta haren bidez konpromiso politikoa nahiz teknikoa hartzen dira, baita herritarrei bideratutakoa ere.

Planaren abiapuntua emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan gizarte-egoerari eta Udalaren egoerari buruzko diagnostiko parte-hartzailea da. Izan ere, hori funtsezko informazioa da udalerriko II. Plana Amorebieta-Etxanoko beharrei, egoerei eta ezaugarri bereziei moldatuta egiteko. Aipatutako dokumentuan datuak eguneratu eta hobekuntza-lerroak identifikatu dira. Horiek udalerriri behar ditu, udalerrian berdintasuna lortzeko.

Aurreko planaren ebaluazioa, urteko txostenak eta egungo egoeraren diagnostikoa II. Plana egiteko oinarritzko tresnak izan dira. Dokumentu honetan hurrengo lau urteetarako proposatzen diren Berdintasun Planaren ekintza nagusiak jaso dira.

II. Amorebieta-Etxanoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Plana 10 ataletan egituratzen da. Hona hemen guztiak: lehenengoa sarrera da, bigarrena generoaren berdintasunari buruzko kontzeptu-esparrua, hirugarrena berdintasun-politiken arau- eta lege-esparrua, laugarrena plana egiteko metodologia, bosgarrena II. Berdintasun Plana lortzeko jarduera-planari buruzkoa da, seigarren atalak planaren kudeaketa egituratzen du, zazpigarren tokian gauzatuko den ebaluazio-

sistemak jarraitzen dio, zortzigarrenean baliabideak daude, bederatzigarren atala egin beharreko ekintzen azken kronograma da eta, azkenik, ebaluazio-fitxak eranstean dituzten eranskinak daude.

Onartu baino lehen, berdintasunerako tokiko planak Emakunderi bidali behar zaizkio, Legeak 15.4. artikuluan xedatutakoarekin bat egiten duela adieraz dezan.

## II. GENEROAREN BERDINTASUNARI BURUZKO KONTZEPTU-ESPARRUA

Berdintasun-planaren egite-prozesua azaldu baino lehen, generoaren berdintasunarekin zerikusia duten zenbait termino sartuko ditugu.

Zer da **emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna**? Generoaren berdintasunak edo sexuen arteko berdintasunak sexuarengatik emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun guztiak deuseztatzea du helburu. Galdera elkarteetarako, herritarrentzako eta udalerriko politikarientzako galdeketa sartu da eta oso modu desberdinean definitu dute, baina Amorebieta-Etxanoko emakumeen eta gizonen artean definiziorik aipatuena honakoa da: “emakumeek eta gizonen eskubide berdinak izatea”.

Berdintasunean aurrera egitea herri-aginte guztiek onartutako erronka da; horregatik, tresna desberdinez hornitu da, besteak beste, **Berdintasun Planez**. Nolanahi ere, Aukera Berdintasuna lortzeko, batetik, helburuak egituratu eta, bestetik, jarduera zehatzak gidatzen dituzten tresna politiko eta administratiboak dira. Planek **ekintza positiboak** eranstean dituzte. Aldi baterako neurriak dira, eta desabantaila dutenen aldeko estrategiez hornitzean datzate. Helburua maila ezin hobea lortzea eta une zehatzean aukera-berdintasunera iristea litzateke.

Edozelan ere, gaur egun gizarteak guztion bizian eta nortasunean nola eragiten duen hitz egiteko, ezinbestekoa da **sexuaz eta generoaz** hitz egitea. NBEk, Emakumei buruzko IV. Munduko Konferentziaren prestatze-lanetan, «generoaren» terminoa onartu zuen emakumeen errealitateari buruzko analisi-tresna bezala.

«Genero forma munduko gizarte guztietan erabiltzen da, gizon eta emakumei dagozkien funtzioak, jarrerak, balioak eta harremanak zehazteko. Sexuak sexu-desberdintasunen ondorioz sortzen diren alderdi biologikoak aipatzen dituen bitartean, generoa emakumeen eta gizonen definizioa da, kulturaren ikuspegitik eraiki dena, eta, beraz, ondorio politiko argiak ditu».

**Sexua-generoa sistema** azken urteetan gizarte-zientzietan sartu den analisi-kategoria bat da eta, horretan oinarrituta, sexuen arteko harremanetan gure baloreak eta sinesmenak zalantzan jar daitezke. Generoaren kategoria analisi bezala erabiltzeari esker, emakumeen eta gizonen artean dauden mendekotasunari eta nagusitasunari buruzko harremanak uler ditzakegu. Sexuen artean

agintearen banaketa desberdinak emakumeek eta gizonek beren gaitasun pertsonal, profesional eta sozialak garatzeko moduan eragiten du.

**Generoaren rolak** gizarte jakinean eta une historiko zehatzean emakumeei eta gizonei atxikitako zereginen eta funtzioen multzoa dira. Tradizioz, emakumeak gauzatzea espero diren zereginen zerikusia dute espazio pribatuarekin, hau da, ordaindu gabeko etxeko lanarekin. Emakumeei zeregin multzo hori atxikitzen zaienean ugalketa-rola betetzen dutela diogu. Gizonek, ordea, espazio publikoa bete behar dute eta bertan erabaki politikoak nahiz ekonomikoak hartzen dira. Produkzio-rola atxikia dute, hots, lan ordaindua, eta horrek agintea nahiz ospea eskaintzen ditu. Generoaren rolangatik emakumeek eta gizonek jokabide-eredu desberdinak dituzte. Generoaren bitartez gizarte bakoitzean emakumeen eta gizonen portaera agintzen da. Emakumei eta gizonei atxikitzen zaizkien ezaugarriek generoaren arabera pertsona bakoitzak izan behar dituen portaerak zehazten dituzte.

**Estereotipoak** aldez aurretik pentsatutako ideia sinpleak dira. Oso errotuak daude eta talde zehatz bateko kide izateagatik pertsonak izan behar dituzten jokabideak, portaerak eta jarrerak zehazten dituzte. Generoaren estereotipoak negatiboak dira emakumeentzat, baita gizonentzat ere, biek gaitasun zehatzak garatzea saihesten baitute. Hala eta guztiz ere, emakumeen estereotipoek gizonezkoen estereotipoek baino gizarte-ospe txikiagoa dutela kontuan hartu behar da.

Oraindik gaur egun emakumeek eta gizonek duten egiazko desberdintasuna ulertzeko, **berdintasun formala** eta **egiazko berdintasuna** bereizi behar dira:

**Berdintasun formalak** erakundeen edo entitateen arauak, legeak eta erregelak aipatzen ditu. Horiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dute. Honako hauek integratzen dituzte: ez-diskriminazioaren printzipioa, legeen aurrean berdinak izateari buruzkoa, hau da, eskubidezko berdintasuna, ez izatezkoa.

**Egiatzko berdintasuna** tratu-berdintasuna da. Pertsonaren sexuan oinarritutako ez-diskriminazioan, ez zuzenekoan, ez zeharkakoan, du bere isla. Sexuarengatik **zuzeneko diskriminaziotzat** jotzen da pertsona baten egoera, sexuaren arabera, aldera daitezkeen egoeratan beste pertsona baten aldean behar bezalako modu mesedegarrian tratatu edo tratatzen bazaio. Sexuan oinarritutako **zeharkako diskriminazioa** da, itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo eginera batek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantaila jakin bat ekartzea beste sexuko pertsonari begira, non xedapen, irizpide edo eginera horiek modu objektiboan justifikatzen ez diren, xede legitimo batekin, betiere, xede horiek lortzeko bideak beharrezkoak eta egokiak izanda.

**Generoaren zeharkakotasuna** prozesu bat da eta horri erreparatuz arlo guztietan eta maila orotan erabaki politiko, praktika edo neurria onartzeak gizonentzat nahiz emakumeentzat dituen ondorio desberdinak balioztatzen dira, bien gizarte-posizioa, interesak eta lehentasunak desberdinak baitira. Emakumeen eta gizonen artean egiazko berdintasun eraginkorrera iristeko tresna da, baita gizonenen antzera, emakumeen kezkak eta esperientziak eremu politiko, ekonomiko eta sozial guztietan politikak nahiz programak egin, abian jarri, kontrolatu eta ebaluatzeko orduan erabil daitezten lortzeko ere. Helburua emakumeak eta gizonak horiekiko onura bera ateratzea eta desberdintasuna ez betiketzea da.

Atal honetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz hitz egiteko orduan garrantzia duten terminoak definitu ditugu.

### **III. BERDINTASUNARI BURUZKO POLITIKEN ARAU- ETA LEGE-ESPARRUA**

Urteak igaro ahala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan erreferentziatzen har ditzakegun geroz eta arau- nahiz lege-esparru gehiago daude eta beren helburua sexuarengatik edozein desberdintasun- edo diskriminazio-mota deuseztatzea da. Ondoren, nabarmenenak zehaztuko dira:

#### **Nazioartean:**

- **Nazio Batuen Gutunak** (1945) 2. artikuluan hala dio: “Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larrukolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik”.
- **Emakumearen kontrako diskriminazio-modu guztiak deuseztatzeari buruzko konbentzioa.** CEDAW (1979). Emakumeen giza eskubideek gizartea osatzen duten eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kultural guztiak barne hartzen dituztela xedatzen du. Printzipio horretatik abiatuta, gobernuei beren lege-esparruetan eskubideberdintasuna sartzeko eta aukera-desberdintasunen kontra borrokatzea eskatzen zaie. Hala, edozein pertsonarentzat eskubide eta askatasun guztiak bermatuko dituzte.
- **Emakumeei buruzko munduko hitzaldiak.** Beijingen IV. Emakumeei buruzko Hitzaldiak (1995), ondoren 2000. eta 2005. urteetan berraztertutakoak (BEIJING+5 eta BEIJING+10), generoaren berdintasunerako lehentasunezko arloak zehazten ditu.

## Europar:

- **Erromako Tratatua** (1957) 119. artikuluan planteatutakoarekin bat, emakume eta gizon langileen artean ordainsarietan berdintasunaren printzipioa aplikatzen dela bermatu behar da, horiek lan berdina egiten badute.
- **Pariseko Gailurrak** (1972) (...) I. Gizarte Ekintzaren Programa onartzen du eta helburutzat honakoak ditu: “Erkidegoaren lan-merkatuan emakumeen eta gizonen artean berdintasuna ziurtatzeko egoera sortzea eta, xede horrez, baldintza ekonomikoak eta psikologikoak hobetzea, baita gizarte- eta pedagogia-azpiegitura ere”.
- **Amsterdameko Tratatua** (1997). Artikulu bereziak ditu eta legez politiken multzoan berdintasuna integratzearekin Erkidegoaren konpromisoa xedatzen du (...).
- **Europar Konstituzioa** aurreko tratatuekin alderatuta oso aurrerapen garrantzitsua da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Europar Batasunaren balio eta helburu bihurtzen baitu.
- **Tokiko biziaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako Europar Gutuna** Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluak garatutako proiektuaren (2005-2006) esparruan, partaide desberdinen lankidetzarekin: EUDEL, udalak...

Gutun hau “Europako toki eta eskualdeetako gobernuetarako da eta emakumeen nahiz gizonen berdintasun-printzipioaren gainean ikuspegi publikoa hartu eta gutuna bera sinatzeko gonbita luzatzen die. Halaber, beren lurraldeetan gutunean zehaztutako konpromisoak aplikatzea eskatzen die”. Testuinguru honetan tokietako eta eskualdeetako agintarien zeregina azpimarragarria da, herritarrei hurbilagoak zaizkien neurrian. Izan ere, “desberdintasunak behin eta berriz errepikatu eta betikotzearen kontra jardun eta egiaz benetako gizartea sustatzeko esku-hartze maila egokienak dira”.

## Estatuan:

- **1978ko Espainiako Konstituzioak** berdintasunaren kontzeptua garatzen du hurrengo artikuluen bitartez:

1. artikulua: “Espainia zuzenbidezko gizarte- eta demokrazia-estatu bezala eratzen da eta bere lege-antolamenduaren goi-mailako balore modura askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu”.

9.2. artikulua: “Herri-aginteei dagokie indibiduoaren eta sartzen den taldeen askatasuna egiazkoa eta eraginkorra izan dadin baldintzak sustatzea, osotasuna saihestu edo zailtzen duten oztopoak baztertzea eta bizi politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean herritar guztien partaidetza bultzatzea”.

14. artikulua: "Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean eta ezin du diskriminaziorik nagusi izan honakoengatik: jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo edozein gorabehera pertsonal ala sozial".



➤ **3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako.**

Horrek xedatutakoaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna “lege-printzipio unibertsala da, hain zuzen ere, giza eskubideei buruzko nazioarteko testu desberdinek onartzen dutena”.

Legearen aurrean formalki berdintasuna oso-osorik onartzea oinarrizko alderdia da, baina ekintza arautzailearekin osatu behar da, “sexuarengatik oraindik dirauten diskriminazioaren azalpen guztien kontra (bai zuzenekoak, baita zeharkakoak ere) borrokatzeko eta emakumeen nahiz gizonen egiazko berdintasuna sustatzeko, horretarako, lortzea saihesten duten gizartearen oztopoak eta estereotipoak baztertuz”.

Horrez gain, herri-aginteen jarduera-printzipioak xedatzen ditu, pertsona fisikoen nahiz juridikoen (publikoak eta pribatuak) eskubide eta eginkizunak arautu ere bai, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna sustatzeko eta sektore publikoetan nahiz pribatuetan sexuarengatik diskriminazio-modu oro deuseztatu eta zuzentzeko neurriak aurrez ikusten ditu. Besteak beste, hurrengo printzipioetan oinarritzen da: “ekintza positiboa”, “ordezkaritza orekatua” eta “zeharkakotasuna”.

Gainera, Legearen bitartez erakunde-partaidetzarako organo kolegiatu bezala Emakumeen Partaidetza Kontseilua eratzea definitzen da.

21.1. artikulua xedatutakoaren arabera, “tokiko erakundeek berdintasunerako eskubidea integratuko du eskumenen erabileran, eta xede horretarako lankidetzan jardungo dute gainerako herri-administrazioekin”.

#### **4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako**

Aipatu behar da otsailaren 18ko 4/2005 Legea gaur egun maila goreneko araua dela eta berdintasunari begira helburuak eta planteamenduak formulatzen dituela eta, ildo horri eutsiz, berariaz tokiko administrazioak aipatzen dituela. Lege honetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan administrazio-maila bakoitzari dagozkion funtzioak definitzen dira. Halaber, bere artikuluen puntu batzuetan araututakoarekin bat, berdintasunerako planak egin behar dira eta administrazioen kasuan eskea 15. artikuluan xedatzen da.

#### **15. artikulua. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak.**

Eusko Jaurlaritzak legealdi bakoitzean eta, hasten den unetik zenbatzen hasita, sei hilabeteren buruan, plan orokorra onartuko du eta modu koordinatuan eta orokorrean jasoko ditu esku hartzeko lerroak eta gidalerroak. Horiek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-agintarien jarduerak orientatzeko erabiliko dira. Plana egiteko, Eusko Jaurlaritzak gainerako euskal herri-administrazioek parte har dezaten aukera emango du.

1. paragrafoan aurren ikusten den plan orokorrari buruzko esku-hartze lerroak eta gidalerroak garatzean, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak bere jarduera-planak eta -programak egingo ditu.

Foru aldundiek eta udalek berdintasunerako planak edo programak onetsiko dituzte, esku hartzeko lerro eta gidalerroei jarraiki.

Zehatz-mehatz esanda, udalei dagokienez, I. Tituluan, 7. artikuluan, tokiko administrazioari honako **funtzioak** esleitzen zaizkio:

- Generoaren ikuspegia integratzeko egiturak, programak eta prozedurak moldatu eta sortzea.
- Ekintza positiboaren neurriak gauzatzea.
- Gobernuaren plangintza orokorraren esparruan programatzea eta foru aldundi bakoitzaren programazioa.
- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoera ezagutzeko eta berdintasuna sustatzea ahalbidetzen duten neurriak ezartzeko estatistika eguneratuak egokitzea eta moldatzea.
- Tokiko eremuan emakumeen eta gizonen egoerari buruzko ikerketak eta azterlanak egitea.

- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egoerari eta berdintasuna sustatzeko neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak gauzatzea.
- Tokiko araudiaren eta emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioarekin bat eginez aplikatzen dela jarraitzea.
- Herritarrei eta, bereziki, emakumeei berri ematea eta orientatzea emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko baliabide eta programen inguruan, edo diskriminazio anitza jasaten duten emakumeak oinarrizko gizarte-eskubideetara iristen direla bermatzeko zerbitzuei dagokienez.
- Diskriminazio anitza jasaten duten emakumeak oinarrizko gizarte-eskubideak lortzen dituztela bermatzeko programak edo zerbitzuak eskaintzea, izaerarengatik udalaren mailan eman behar badira.
- Baliabide eta zerbitzu sozio komunitarioak zehaztea, bizi pertsonala, familiarena eta lanekoa bateratzeko, izaerarengatik udalak eskaini behar baditu.
- Beren helburu edo eginkizunen arabera emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko lan egiten duten erakunde pribatu eta publikoekiko partaidetza eta lankidetzarako harremanak eta bideak ezartzea.
- Sexuarengatik diskriminazio-egoerak antzematea, tokiaren eremuan gertatzen badira eta errotik ateratzeko neurriak hartzea.
- Bere aginpidearen eremuan eman dakioken edozein funtzio.

## **VI. Plana EAEn emakume eta gizonen berdintasunerako, X. Legealdia.**

2013. urteko abenduaren 30ean onartu da eta Emakunde argitaratu du. Bertan, X. legealdian berdintasunaren eremuan euskal herri-aginteen jarduera orientatzeko gidalerro nagusiak jasotzen dira.

Plana aurreko bost planetatik ikasi eta horiek ebaluatu ondoren sortu da. Era berean, EAEko emakumeen eta gizonen errealitatea aztertu da. Ildo horri jarraiki, helburuak zehazten ditu eta une honetan berdintasunaren arloan gertatu diren aldaketak eta aurrerapenak finkatzearen aldeko apustua egiten du.

VI. Planaren ustez funtsezkoa da biziaren eremu guztietan (ekonomikoa, politikoa, soziala eta kulturala) baloreen aldaketa lantzea berdintasunean oinarritutako gizarte-eraldaketa sustatzeko formula bezala. Ardatz batek berariaz baloreen aldaketarako programa du eta bere asmoa, batetik, Planaren buru izatea eta, bestetik, osatzen duten gainerako programetan eragitea da.

VI. Planak hurrengo urteei begira lehentasunez eragin eta landu behar diren helburuak aipatzen ditu. Dena den, ez ditu definitzen proposatutako helburuak lortzeko estrategia edo ekintza zehatzak, erakunde bakoitzak norberaren errealitatea (kanpokoa nahiz barrukoa) kontuan hartuta, bere jarduteko modua izan behar duelakoan.

Hala, herri-administrazioek, baita gainerako erakundeek ere, autonomia handiagoa dute eta, aldi berean, guztiak norabide bera jarraitzen dutela eta helburu berdinak lortzeko lanean ari direla ziurtatzen da.

VI. Plana, beraz, bi arlo handitan egituratzen da: batetik, berdintasunaren aldeko agintaritzea hobetzeko neurriak ditu eta, bestetik, berdintasunaren eremuan esku hartzeko ardatzak, bakoitzerako programa bereziekin:

Berdintasunaren aldeko agintaritzarako **neurriak**. Euskal Herri Administrazioan berdintasunaren printzipioa integra dadin bultzatzeko hamahiru neurri.

- G.1 Berdintasunerako plangintza areagotu eta hobetzea.
- G.2 Berdintasunerako administrazio-unitateak sortu eta sendotzea.
- G.3 Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortu eta sendotzea.
- G.4 Generoaren ikuspegia estatistika eta azterlanetan sartzea.
- G.5 Prestakuntza-jardueretan generoaren ikuspegia sartzea.
- G.6 Enplegu publikoa lortu eta sustatzeko hautespen-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak eranstea.
- G.7 Mintzairaren edota beste komunikazio-elementu batzuen erabilera ez-sexista egitea.
- G.8 Arautegian berdintasunaren printzipioa integratzea.
- G.9 Aurrekontuetan generoaren ikuspegia integratzea.
- G.10 Sektoreen planetan eta zeharkako planetan generoaren ikuspegia sartzea.
- G.11 Kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.
- G.12 Epaimahaietan eta auzitegietan emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua sustatzea.
- G.13 Kontsulta- eta partaidetza-organoetan generoaren ikuspegia sartzea.

Berdintasunaren eremuan **esku hartzeko ardatzak**. Berdintasunaren arloan lehentasunezko hiru eremu daude zortzi programa berezirekin:

1. ardatza: baloreak aldatzea eta emakumeak burujabetzea.

- ❖ 1. programa: baloreak aldatzea
- ❖ 2. programa: burujabetza pertsonalerako laguntzea.
- ❖ 3. programa: taldeko burujabetzarako laguntzea.
- ❖ 4. programa: burujabetza sozial eta politikorako laguntzea.

2. ardatza: erantzukizun bateratua duen gizarte-antolaketa

- ❖ 5. programa: erantzukizun bateratua eta denbora-erabilera berriak.
- ❖ 6. programa: erantzukizuna partekatzen duen bateratzea.

3. ardatza: emakumeen kontrako indarkeria errotik ateratzea

- ❖ 7. programa: sentsibilizazioa eta prebentzioa
- ❖ 8. programa: antzematea eta arreta

## IV. PLANA EGITEKO METODOLOGIA

II. Amorebieta-Etxanoko udalerriko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana garatzeko metodologia parte-hartzailea izan da nagusi. Horretarako, udalerriko elkarte desberdinei, Udaleko teknikariei nahiz politikariei eta, oro har, herritarrei nahasi zaie.

Dokumentu hau egiteko prozesu metodologikoa lehenengo eta bigarren mailako iturrietan oinarritu da eta **metodologia mistoari** (kuantitatiboa eta kualitatiboa) erreparatu zaio, batetik, datu estatistikoen bitartez informazio objektiboa lortu baita eta, bestetik, subjektiboa, zuzenean behatzen nahiz ekarpenak, iritziak eta hobekuntza-beharrak jasotzen eskuratu baita.

Bi galdeketa-eredu desberdin egin dira: herritarrentzako, eremu ezberdinetako udalerriko elkarteetarako eta politikarientzako galdeketa eta Udaleko langileei bideratutako galdeketa. Lehenengoaren helburua informazioa, iritziak eta beren genero-ikuspegia lortzea da; bigarrenak, berriz, udal-sail bakoitzean genero-ikuspegiaren sartzeko-maila balioztatu eta ezagutzea du xede.

Herritarrentzako galdeketa-eredua Udalaren web orrian argitaratu da, ahalik eta pertsona gehienei eta sentikortasun desberdinei iristeko.

**Informazio kuantitatiboa** biltzeko, bigarren mailako iturrietara (Amorebieta-Etxanoko Udala, Eustat, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, Lanbide...) jo da.


**Informazio kualitatiboa** lortzeko lehenengo mailako iturriak erabili dira eta, horretarako, baliabideak galdeketa eta gaian erreferentziazko pertsonekin harremana izan dira.

Datu kuantitatiboak eta kualitatiboak biltzeko prozesu guztiari esker, baita kontsultatutako erreferentziazko pertsoneri esker ere, ale-kopuru esangarria jaso da eta, bide batez, lortu nahi den helburu nagusiari behar bezala erantzun diezazkioten errealitateak eta joerak eskuratu ahal izan dira.

Gainera, Plana egiteko prozesu guztian zehar, Berdintasun Arloak, talde eragile bezala, aldizka jarraipen-bilerak egin ditu Sailaren barruan. Gauza bera gertatu da Berdintasun Batzordearekin eta Udaleko sail nahiz langileekin harremana mantendu da.

II. Plana egiteko orduan, prozesu batean oinarritu da eta fase desberdinak izan ditu ondoren ikus daitezkeen modura:

### KRONOGRAMA



## **II. BERDINTASUN-PLANA LORTZEKO JARDUERA-PLANA**

Bosgarren puntu honetan Plana definitu eta helburuak zehazten dira. Horiek bi atal handiren arabera egituratu dira, VI. EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Planak adierazten baititu. Lehenik eta behin, berdintasunaren aldeko agintaritza hobetzeko neurriak eta, bigarrenez, berdintasunaren arloan esku hartzeko ardatzak. Ardatz bakoitzean hurrengo urteetarako aurrez ikusten diren ekintzak eranstean dira.

### **A. BERDINTASUNAREN ALDEKO AGINTARITZA HOBETZEKO NEURRIAK**

#### **Zer da agintaritza?**

Agintaritza geroz eta gehiago erabiltzen ari den kontzeptua da herri-aginteen esku-hartzeari dagokion eraginkortasuna, kalitatea eta orientabide ona izendatzeko. Izan ere, batzuetan “gobernatzeko modu berria” definitzen den horretan zilegitasuna eskatzen die. Agintaritzaren kontzeptua erabakiak hartzean eta erabakiak inplementatzen diren ondorengo prozesuan, hau da, berdintasun-politiken arloan gobernu ona ziurtatzeko administrazioak abian jartzen dituen mekanismoetan oinarritzen da.

Generoaren ikuspegia integratzea edo generoaren mainstreaminga, nazioartean eta Europan gaur egun gomendatzen den lan-estrategia bat izateaz gain, euskal herri-aginteen jarduerara arautu eta orientatu behar duen printzipio orokor bat da, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako denak, 3.4. artikuluan aurrez ikusten duen bezala.



## **. artikulua. Generoaren ikuspegia integratzea**

*“Euskal herri-aginteeek beren politika eta ekintza guztietan generoaren ikuspegia sartu behar dute eta, ondorioz, guztietan helburu orokorra izango da desberdintasunak deuseztatzea eta emakumeen nahiz gizonen artean berdintasuna sustatzea”.*

*Lege honek xedatzen duenerako, generoaren ikuspegia integratuzat jotzen da emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, nahi eta behar desberdinak sistematikoki kontuan hartzen direnean eta, xede horrez, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta plangintzari, gauzatzeari eta ebaluatzeari dagozkion fase guztietan desberdintasunak deuseztatzea eta berdintasuna sustatzea bideratutako helburu eta jarduera bereziak sartzen direnean.*

II. Amorebieta-Etxanoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak agintaritza hobetzeko sei neurri eranstean ditu eta, ildo horretatik, udalerrian aipatu helburuak lortzeko ekintza zehatzak definitzen ditu.

### **BERDINTASUNAREN ALDEKO AGINTARITZA HOBETZEKO NEURRIAK**

G.1. HELBURUA: Berdintasunerako plangintza areagotu eta hobetzea.

G.2. HELBURUA: Prestakuntza-jardueretan generoaren ikuspegia sartzea.

**G.3. HELBURUA: Berdintasunaren Arloa udal-aurrekontuetan ikusaraztea eta Planean proposatutako jarduerak garatzeko urtean aurrekontu bereziaz hornitzea.**

G.4. HELBURUA: Enplegu publikoa lortu eta sustatzeko hautespen-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak eranstea.

G.5. HELBURUA: Mintzairaren edota beste komunikazio-elementu batzuen erabilera ez-sexista egitea.

G.6. HELBURUA: Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortu eta sendotzea.

## A. BERDINTASUNAREN ALDEKO AGINTARITZA HOBETZEKO NEURRIAK

### G.1. HELBURUA: Berdintasunerako plangintza areagotu eta hobetzea.

EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	NAHASITAKO ARLOAK/ERAKUNDEAK ORGANISMOAK	KOSTU EKONOMIKO A/ DIRU-LAGUNTZA	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA			
					2016	2017	2018	2019
G.1.1.: Berdintasun Planaren helburuak barnean Udaleko administrari, teknikari eta politikari guztiei hedatzea.	Berdintasun Arloa	Udaleko sail guztiak	Zerbitzuaren orduak	-Dokumentua bidalia (bai/ez). -Jasotako ekarpen-kopurua sexuaren eta sailen arabera				
G.1.2.: Hurrengo urteetarako Berdintasun Planaren helburuak kanpoan zabaltzea. Informazioa Udaleko web orrian, Facebooken eta tokiko aldizkarietan jartzea.	Berdintasun Arloa	Tokiko eta eskualdeko komunikabideak, Berdintasunari buruzko Udal Kontseilua	Zerbitzuaren orduak	-Udaleko web orrian eta Facebooken sartutako informazioa (bai/ez) -Hedatzeko erabili den bitarteko-kopurua				
G.1.3.: E-posten bidez aldizka Udaleko sail desberdinei informazioa bidaltzea berdintasunaren eremuan arloak gauzatzen ari dituen jardueri buruz.	Berdintasun Arloa	Udaleko sail guztiak	Zerbitzuaren orduak	-Informazioa bidalia (bai/ez). -Bidalitako informazio-kopurua eta -mota.				

G.1.4.: Berdintasun Arloak egindako jarduera desberdinei buruzko informazioa Udaleko web orrian eta Facebooken argitaratu eta azaltzea.	Berdintasun Arloa	Informatika Arloa	Zerbitzuaren orduak	-Informazioa bidalia (bai/ez) -Argitaratutako informazioaren kopurua eta mota.				
G.1.5.: Planaren indarraldiko urte bakoitzerako plan operatiboa egitea aurreko urteko txostenean egindako balioztapenen arabera.	Berdintasun Arloa	Berdintasun Arloa	Zerbitzuaren orduak	-Plan operatiboa egina (bai/ez)				
G.1.6.: Udaleko Intranetean eta web orrian berdintasunari buruzko hileko buletinak argitaratzen jarraitzea.	Berdintasun Arloa	Informatika Arloa	Zerbitzuaren orduak	-Hileko argitalpena (bai/ez) -Informazioa bidalia (bai/ez)				
G.1.7.: Udal-sailekin banako bilerak edota jarduerak egitea, Udalaren kudeaketan generoaren ikuspegia sartzeko.	Berdintasun Arloa	Udaleko sail guztiak	Zerbitzuaren orduak	-Bileren kopurua sailen eta sexuaren arabera. -Modu koordinatuan berdintasuna lantzeko egin den proposamenen kopurua eta mota.				
G.1.8.: Web orriaren eta gizarte-sareen bitartez berdintasunarekin zerikusia duten gaien buruz herritarren ekarpenak jasotzea.	Berdintasun Arloa	Berdintasun Arloa	Zerbitzuaren orduak	-Jasotako ekarpenen kopurua sexuaren arabera.				
G.1.9.: Udalean sortzen den informazio guztiari buruzko datuen bilketa aldatzea, egindako dokumentuetan pixkana sexuen arabera bereiztea lortzeko.	Berdintasun Arloa	Sail guztiak	Zerbitzuaren orduak	-Aldatutako dokumentuen kopurua. - Sail partaideen kopurua sexuen arabera banatua.				

## G.2. HELBURUA: Prestakuntza-jardueretan generoaren ikuspegia sartzea

EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	NAHASITAKO ARLOAK/ERAKUN DEAK ORGANISMOAK	KOSTU EKONOMIKO A/ DIRU- LAGUNTZA	ADIERAZLEAK	KRONOGRAM A			
					2016	2017	2018	2019
G.2.1.: Dauden beharretara moldatutako prestakuntza-ekintzak egitea, Enplegurako Plan Integralaren pertsona arduradunarekin koordinatuz.	Berdintasun Arloa	Enplegurako Plan Integrala, Berdintasun Arloa	Zerbitzuaren orduak	-Egindako bileren kopurua. -Pertsona partaideen kopurua, sexuaren arabera.				
G.2.2.: Udaleko langileentzat berdintasunaren eremuan prestakuntza-ikastaro bereziak antolatzea.	Berdintasun Arloa	Udaleko sail guztiak	x	-Prestakuntza egina (bai/ez) -Egindako ikastaroen kopurua. -Partaideen kopurua sailen eta sexuaren arabera.				
G.2.3.: Kargu politikoentzat berdintasunaren arloan prestakuntza-ikastaro bereziak antolatzea.	Berdintasun Arloa	Udalbatzako alderdi politikoen ordezkariak	x	-Prestakuntza egina (bai/ez) -Egindako ikastaroen kopurua. -Partaideen kopurua sailen eta sexuaren arabera.				

**G.3. HELBURUA: Udal-aurrekontuan Berdintasunaren Arloa ikusaraztea eta Planean proposatutako jarduerak garatzeko urtean aurrekontu bereziaz hornitzea**

EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	NAHASITAKO ARLOAK/ERAKU NDEAK ORGANISMOAK	KOSTU EKONOMIKOA / DIRU-LAGUNTZA	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA			
					2016	2017	2018	2019
G.3.1.: Bultzatutako jarduera desberdinak egiteko Berdintasunaren Arloa aurrekontu bereziaz hornitzen jarraitzea.	Berdintasun Arloa	Berdintasun Arloa	x	-Berdintasunerako aurrekontu berezia izatea (bai/ez).				
G.3.2.: II. Berdintasunerako Planaren zenbait ekintza egiteko erakundeei eta organismoiei diru-laguntzak eskatzea.	Berdintasun Arloa	Eusko Jaurlaritza	Zerbitzuaren orduak	- Diru-laguntza eskatua (bai/ez). -Eskatutako diru-laguntzen kopurua.				

**G.4. HELBURUA: Enplegu publikoa lortu eta sustatzeko hautespen-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak eranstea.**

EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	NAHASITAKO ARLOAK/ERAKU NDEAK ORGANISMOAK	KOSTU EKONOMIKOA / DIRU-LAGUNTZA	ADIERAZLEAK	KRONOGRAM A			
					20	20	20	20
G.4.1.: Udaleko lanpostuetarako oposizioen gai-zerrendetan berdintasunaren eremuan berariazko atala bermatzea.	Berdintasun Arloa	Kontratazioaren Arloa	Zerbitzuaren orduak	-Gai-zerrendan berdintasunari buruzko galdera bereziak izatea (bai/ez).				

**G.5. HELBURUA: Mintzairaren edota beste komunikazio-elementu batzuen erabilera ez-sexista egitea**

EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	NAHASITAKO ARLOAK/ERAKUN DEAK ORGANISMOAK	KOSTU EKONOMIKO A/ DIRU-LAGUNTZA	ADIERAZLEAK	KRONOGRAM A			
					20	20	20	20
G.5.1.: Udaleko langile guztientzat lan-tresna izan dadin gida egin nahiz zabaltzea eta, hala, mintzairaren erabilera barneratzailea sustatzea.	Berdintasun Arloa	Sail guztiak	Zerbitzuaren orduak	-Gida egina (bai/ez). - Gida zabaldua (bai/ez).				
G.5.2.: Udalaren barruan mintzaira eta bestelako komunikazio-elementu ez-sexistak erabiltzeko sentsibilizazio-kanpaina urtero egitea.	Berdintasun Arloa	Sail guztiak	Zerbitzuaren orduak	-Sentsibilizazio-kanpaina egina (bai/ez).				

**G.6. HELBURUA: Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortu eta sendotzea**

EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	NAHASITAKO ARLOAK/ERAU NDEAK ORGANISMOAK	KOSTU EKONOMIKOA / DIRU-LAGUNTZA	ADIERAZLEAK	KRONOGRAMA			
					20	20	20	20
G.6.1.: "Berdinsarea" Berdintasunerako eta Indarkeriaren Kontrako Euskal Udalerrien Sarean parte hartzen jarraitzea.	Berdintasun Arloa	Berdintasun Arloa	Zerbitzuaren orduak	-Joandako bileren kopurua. -Online egindako kudeaketan kopurua.				
G.6.2.: Udal Kontseiluaren bitartez emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko politikak sustatzeko orduan lanean jarraitzea eta erakunde partaideen proposamen edota behar desberdinak jasotzea, baita bildutako proposamenetan oinarritzen diren jarduerak gauzatzea ere.	Berdintasun Arloa	Berdintasun Arloa Berdintasunerako Udal Kontseilua	Zerbitzuaren orduak	-Egindako bileren kopurua. -Partaideen kopurua, erakunde-motaren eta sexuaren arabera. -Jasotako proposamenen kopurua mota eta erakundearen arabera. -Egindako jardueren kopurua eta mota				
G.6.3.: Berdintasunerako Udal Kontseiluaren eratze-estatutuak aldatzea eta web orrian argitaratzea, herritarrek modu partikularrean parte har dezaten sustatzeko.	Berdintasun Arloa	Berdintasun Arloa Berdintasunerako Udal Kontseilua	Zerbitzuaren orduak	-Estatutuak aldatu eta onartzea (bai/ez). -Web orrian argitaratzea (bai/ez). -Erantsitako pertsonen kopurua.				

## **B. BERDINTASUNAREN ARLOAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK**

Arestian aipatutako neurriez gain, II. Amorebieta-Etxanoko Berdintasunerako Planak bigarren atala du eta horretan berdintasunaren eremuan esku hartzeko hiru ardatz agertzen dira, VI. EAEko Planak adierazitakoari jarraiki. Esku-hartzeko ardatz bakoitzak hurrengo urteetan betetzeke helburuak eta jarduerak ditu.

### **I. ARDATZA: BALOREAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK BURUJABETZEA**

1. helburua. Amorebieta-Etxanoko biztanleentzat berdintasunezko praktikak eta jarrerak sustatzen jarraitzea.
2. helburua. Udalerrian adin guztietan emakumeen kirol-jarduna ikusaraztea.
3. helburua. Emakumeak burujabetzeko eta kulturaren nahiz, oro har, gizartearen eremuan ikusarazteko baldintzak erraztea.

### **II. ARDATZA: ANTOLAKUNTZA SOZIAL ERANTZUNKIDEA**

1. helburua. Erantzukizun bateratua eta zaintzaren etika sustatzea.
2. helburua. Bateratzeari eta ordutegi-malgutasunari buruzko zerbitzuak sustatzea.

### **III. ARDATZA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA ERROTIK ATERATZEA**

1. helburua. Neskekiko eta emakumeekiko jokabide bortitzak prebenitzeko lanean jarraitzea.
2. helburua. Tratu txarren biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea, erakunde guztien artean koordinatutako jarduera integralen bidez.



## **I. ARDATZA. BALOREAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK BURUJABETZEA**

### **Zer da baloreen aldaketa eta burujabetzea?**

Lehenengo ardatz honek emakumeen balore aldaketa eta burujabetzan eragin nahi du, Euskadin berdintasunari buruzko politiketan oinarrizko elementuak baitira. Batera lan egiten da, emakumeen eta gizonen berdintasuna lantzen duten erakunde guztien gomendioa izateaz gain, estuki lotuak baitaude.

Gure baloreak aldatu arren, oraindik onartzen da hierarkian gizonak emakumeak baino gorago daudela eta beren ekintzak garrantzitsuagoak direla. Baloreak aldatzea zeregin konplexua da, gure gogabideetan eragin behar baitugu, baina ezinbestekoa da gizarte-eraldaketa lortzeko.

